

BEZEROAREKIKO HARREMANAK



Gure enpresaren eta bezeroen artean sortu nahi dugun **harremana pertsonala** izango da.

Bezero bakoitzak izan dezakeen zalantzak edo arazoak banaka aztertu eta konpontzen saiatuko gara.

Horretarako, **WIXUk chat** eta posta elektronikoko bidezko zerbitzua eskainiko du, astelehenetik ostiralera 24 orduz abian egongo dena.

Halaber, gure aplikazioaren hobekuntzarako hilean zehar jaso ditugun zalantza guztien bilduma sortuko dugu. Modu horretan, gehien errepikatzen diren zalantzak aztertu eta hauek ekiditen saiatuko gara; diseinua, azalpenak edota aplikazioaren beste esparru batzuen hobekuntza lortu arte.

Izan ere, gure helburu nagusia, aplikazioak erabilera **erraza** eta **segurua** izatea da.

